

GELDITZEN EZ BADITUGU, TXIKITU EGINGO GAITUZTE



Gobernu ezberdinek, botere ekonomiko eta patronalei erabat men eginez doktrina neoliberalak inposatzen ari dira, krisia sortu dutenen mesedetan gizarte osoa pobretuz.

Zor publikoaren ordainketa, gastu soziala eta inbertsio publikoaren gainetik jartzea guztiz basatia izateaz gain, aitzakia hutsa da zerbitzu publikoak erasotzeko.

Kalitatezko zerbitzu publiko unibertsalak izatea gizarte justu baten isla da, eta botere ekonomikoak gizarte justurik ez du nahi. Zerbitzu publikoen kontra ari da etengabe zerbitzu publikoen langileen lan-baldintzak etengabe narriatuz.

■ **Zerbitzu publiko-etako langileok azken bi urteetan, sektoreen arabera, %10 eta 13 arteko eroste-ahalmena galdu dugu.** Honi instituzio batzuk, Itzarri eta Elkarkidetzari ekarpenak egiteari uzteak ekarri duen soldata

jaitziera berria gehitu behar diogu.

■ **Ordezkapenak egiteari utzi zaio neurri handi batean, ondorioz, aurretik lanean aritzen ziren milaka langilek momentu honetan ez dute lanik, hau da, ezkutuko**

kaleratze kolektiboa egin da. Aldi berean, zerbitzu asko gainezka dabilta, larrialdi zerbitzuak saturatua ospitaleetan; ordezkapenak ez egiteak eta lan kargak handitzearen ondorioz ezin da behar bezalako hezkuntza eman; prestazio sozialen ordainketa atzeratzen ari da ez dagoelako langile nahikorik espedienteak izapidetzeko...

■ **Zerbitzu publiko-etako langileak kriminalizatze kanpian beste pausoa emanaz aldi baterako ezintasunen osagarriak neurri handi batean kendu egin dituzte, erretirorako eta adinarekin lotutako beste lansari batzuekin batera.**

Doktrina neoliberalak inposatzen du zor publikoa jaitsi beharra dagoela, baina fiskalitatean aldaketarik egin gabe. Hau honela, gobernuek proposatzen duten bide bakarra zerbitzu publikoetan berritoki ere murrizketak inposatzea da. Oraingo honetan, 30.000 milioi gorako murrizketa inposatu nahi digute.

Administrazioek bere burua zurrizteko, langileoi sasi-negoziaketak egitea proposatzen digute hartzen dituzten neurriei zilegitasuna emateko, baina ELAk argi dauka txantaje hau guztiz onartezina dela eta egoera honi benetako irtenbidea emateko murrizketak salatu, alternatibak sozializatu eta politikak aldatzea behartzeko antolatu eta mobilizatzea beste biderik ez dugula.

GURE ALTERNATIBA

ELAk beste sindikatu batzuekin batera neurri hauei alternatibak aurkeztu zizkien gure instituzioei dekalogo baten bitartez. Dekalogo horretako neurriak aurrera ateratzea da murrizketa eta sufrimendu egoera honetatik ateratzeko modu bakarra, baita zerbitzu publikoetan ere, hala nola fiskalitatearen sakoneko aldaketa kapitalaren errentek dagokien ekarpena egin dezaten, prestazio sozialak hobetzea, zerbitzu publikoak garatzea eta abar.

Alternatiba hori aurrera eramateko inolako menpekotasun ekonomiko edo politikorik ez duen sindikalismoa indartzea beste biderik ez dago, eraso izugarri honek planteatzen digun erronkaren aurrean langileon indarra antolatu eta handitzea da gure helburua. Lan zentro bakoitzean langileak informatu, konzientziatu eta antolatu beharrean

gaude, izan ere antolatzen ez bagara ezingo ditugu urte askotan zehar borrokan ondorioz lortutako lan baldintzak mantendu negoziatu eta hobetu.

Aldiz, antolatu eta gure indarra gehitzen goazen heinean gure lan eta bizi baldintzak hobetzeko aukera izango dugu eta zerbitzu publikoak sendotu eta garatzeko, hain zuzen ere gizartean behar gehien dutenei oinarritzko babesa eta kalitateko zerbitzua eman ahal izateko.

Klase ikuspegi hau da zerbitzu publikoetako langileak defendatzeko modu bakarra, sakoneko aldaketa orokorrik gabe murrizketen kudeaketa egitea besterik ez zaigu geratuko eta.



ENPLEGU PUBLIKOAREN LEGEA: ERRE

GELDIARAZI EGI



Eusko Jaurlaritza Enplegu Publikoaren Euskal Legea ari da egiten, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutua garatzeko; berau espainiar Parlamentuan 2007an onartu zen, CCOO eta UGTrekin hitzartu ostean.

Lege honekin Erreforma Laboralaren mamia arlo publikora eraman nahi dute; zerbitzu publikoen gaineko kontrol publikoa ezarri

nahi du; zerbitzu publikoak etorkizunean pribatizatzeko oinarriak aurreratu eta ezarri, eta lan-baldintzak erabat okertu.

Legegai honek estatuko oinarrizko araudiari men egiten dio, eta horrela baztertu egiten du EAEko herritarren beharrianak ase ditzakeen euskal arlo publiko bat sortzeko aukera.

Legegaiak de facto ezabatu nahi du funtzio-

narioen izaera mugiezi-na, hots, herritar orori -edozein dela ere bere joera politikoa zein aberastasun maila- kalitatezko zerbitzua jasotzea bermatzen dioten bitartekoak kendu nahi ditu. Horrela agintariak eragina izan dezakete baime-nak lortzeko erabakietan, tratamendu medikoa- ebazterakoan, gizarte-prestazioak ukatzera-koan...

NOLA EGIN NAHI DUTE?

REFORMA LABORALA ARLO PUBLIKOAN

IN BEHAR DUGU

1.- GIZARTEAREN KONTROLA EZABATUTA

Estatuturik autoritarioenetan bezala, administrazioak gizarteari ukatu egiten dio parte hartzeko edozein bide, zeharka zein zuzenean, administrazioaren kudeaketari dagokionez (zerbitzuen zenbatekoa eta kalitatea erabakitzeko, legedia administratiboa edota hautapen prozesuak ezagutzeko...). Alderdiek ez dute nahi gizarteak beren jardura kontrolatzerik.



2.- LAN BALDINTZEN INPOSIZIOA

Zerbitzu publikoetako langileentzako babes kolektiboa desagertzea nahi dute:

a) **EEE administrazioan:**

Administrazioak berak egingdako memoriak oinarritzat hartuta, hark alde bakarreko erabakiz eta inolako prozesu garantistarik gabe ordutegiak aldatu ahal izango ditu, langileak arloz aldatu, administrazio arteko mugikortasuna ezarri, edota zerbitzuak eta lanpostuak ezabatu.

b) **Bitarteko langilea =**

esklabua: Legegaiaik dioenez, bitarteko lan-egoerak amaitu ahal izango dira arduradun publikoak egindako aurkako txosten baten ondorioz, ebaluatzeko irizpide

objektiborik gabe. Gainera, ez dago inongo tresnarik administrazioetako eskandaluzko bitarteko langile kopurua finkatzeko, ezta etorkizunean hau gertatzerik ekiditeko ere.

c) **Ez dago negoziazio kolektiborik:**

Administrazioek erabaki ahal izango dute zein esparrutan zer negoziatuko den; bere nahierara erabakiko ditu guztion baldintzak –gehiengo sindikalarekin, gutxiengoarekin eta are akordiorik gabe–, eta nolanahi ere aurrerago baldintzak alde bakarreko erabakiz aldatzeko aukera izango dute.

d) **Ordainsari aldakorrak, menpekotasuna nagusi:**

Legegaiaik soldataren egitura aldatu nahi du, eta karrera profesionalari berebiziko pisua eman nahi dio. Haatik, karrera hori bi faktorek baldintzatzen dute: batetik, formakuntza nork eta nola eman behar duen ez dago zehaztuta (hots, helburua finantzatzeko bide honi men egiten dioten sindikatuak kontrolatzea da) eta, bestetik, zuzendari publikoek egingo dute jardueraren ebaluazioa, baina legeak ez du zehazten ebaluatzeko irizpideak zein iango diren; hots, langileen menpekotasuna lortu nahi dute, ordainsariaren gaineko kontrolaren bitartez.

3.- EUSKALDUNTZEA, XXII. MENDERAKO

Legegaiaik ez du ematen administrazioa benetan euskalduntzeko tresnarik; ez administrazioan

diharduten langileak euskalduntzeko, ez etorkizunean sartuko direnak benetako gaitasuna dutela bermatzeko ere. Berrito, kalitatezko zerbitzua obsesio identitarioen mesedetan baztertzten da.

REBA OROKORRA

LAN ERREFORMA, ABERASTASUN BANAKETA INJUSTU HONETAKO BESTE PAUSO BAT



Azkeneko hamarkadetan instituzioetatik proposatu dituzten neurri eta erreforma guztiek aberastasunaren banaketa injustuago bat ekarri dute; gutxi batzuk geroz eta aberastasun handiagoa metatzen duten bitartean, gizartearen gehiengoak geroz eta pobregoa gara.

FISKALITATEA:

Azken 15 urtetan gure instituzioak fiskalitatearen inguruan hartu dituzten erabakiak, Hego Euskal Herria paradisu fiskal bilakatu dute. EAEko zerga-bilketa Europakoko batez bestekoa baino 10 puntu apalagoa da, hau da, 6.500 milioi euro uzten ditugu aberatsenen esku gizartearen inbertitzeko bildu gabe, eta iruzur fiskala eskandaluzkoa da.

Zerga-politika eta neurri hauek historiako kapitalen metatze handiena ekarri dute, espekulazio basatira bideratu eta egungo krisi ekonomikoa sortu duen metatzea, eta funtsezkoak diren inbertsio publiko eta sozialak egiteko diru sarrerarik ez izatea.

LAN ETA NEGOZIAZIO KOLEKTIBOAREN ERREFORMA, PENTSIOEN ERREFORMA:

Erreforma hauek guztiek, gizartearen gehiengoaren eskubideak larriki urratzen dituzte, negoziazio eta babes kolektiborako tresnak ahuldu eta lan-baldintzen negoziazio indibidualizatua bultzatzen dute eta lan-baldintzen eta soldaten murrizketa bilatzen dute. Neurri hauek enpresario eta botere finantzieroen boterea handitu

besterik ez dute egiten, aurrez bezala, oraingo krisi egoeran ere, aberastasuna metatzen jarraitu ahal izateko.

ZERBITZU PUBLIKOEN ERAISPENA:

Zerbitzu Publikoen eraispena ere aberastasunaren banaketa injustu honetan kokatu behar dugu, alde batetik, lan-baldintzak okertuz eta, bestetik, zerbitzu zein prestazioak okertuz edo desagerararaziz.

Zerbitzu Publikoak aberastasunaren banaketarako ezinbesteko tresna gara, izan ere, unibertsalak eta zergen bitartez finantzatuak diren neurrian beste modu batean oinarritzko zerbitzuak (hezkuntza, osasuna, segurtasuna, larrialdiak, prestazio sozialak...) jasotzeko aukerarik izango ez luketenei zerbitzu horiek eskaintzeko modua baitira.

Beraz, zerbitzu publikoak murrizteak pertsona asko lanik gabe eta oinarritzko beharretan babesik gabe uztea dakar, eta arlo hauek guztiak negozio pribatuari irekitzea. Era berean, zerbitzu publikoetan inposaturiko murrizketak eredutzat erabili nahi dira enpresa pribatuan ere lan baldintza eta soldatak beherantz botatzeko.

BANAKETA INJUSTU HAU ALDATZEKO BORROKAN, MARTXOAK 29AN DENOK KALERA!

ELAk helburu argi batekin deitzen du martxoaren 29ko greba orokorrera: aipatutako injustizia horiei guztiei alternatibak lantzea eta kalean indartzea. Borroka bakoitza langile klasea indartzeko prozesu batean kokatzen dugu, alternatibak ezarrita aberastasunaren banaketa justu batetik bakarrik etorriko baita benetako konponbidea. Horregatik, Zerbitzu Publikoetan ere ezinbestekoa da martxoaren 29ko greba arrakastatsua izatea, langileok indarra metatzen jarraitzen badugu erreforma hau eta datozenak geldiaraziko ditugu-eta.